

## GIL 105

# Matxixakoko luiziak



Harkosko-hondartzaren ikuspegia; materiala nabarmen biribildua ageri da.

## Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 27' 24'' N

Long.: 2° 45' 5'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 520.124,41 m

Y: 4.811.464,09 m



## Nola iritsi

Matxixakoko luiziak ikusteko, Bermeotik Bakiora doan errepidea hartu behar da. Bermeotik 3 km-ra, gutxi gorabehera, bide bat irteten da Matxixakoko itsasargira, eta itsasargi zaharrera doan errepidetik jarraitu behar da. Handik, bide arriskutsu samar bat abiatzen da, eta handik ikus daitezke luiziak. Harkosko-hondartzara jaisteko, gutxi gorabehera bidearen erdian (eskuineranzko bigarren desbideratzea), errepide bat ateratzen da, eta, malda piko bat jaitsi ondoren, labarraren oinera iristen da Gaviotako gasbidea iristen den puntuan.



Luizia harkosko-hondartzan.

## Deskribapena

Matxitzako lurmuturra Bizkaiko punturik iparraldekoena da, eta itsasoraino sartzen da. Ikluspegi bikaina du. Gaztelugatxeko biotopo babestua ikusten da handik.

Lurmuturra unitate morfoestrutural bat da, konplexu supraurgondarraren flysch beltzaren serie turbiditikoaren gainean garatua. Hareharri eta konglomeratuen txandakatze batez eratuta dago, eta kostaldearen jarduerak labar-multzo ikusgarri bat landu du haietan. Labarrek kolubioi-estaldura bat dute, lurmuturraren alde banatako gainazalaren parte handi bat hartzen duena.

Etenguneak daude, eta kompetentzia desberdineko arroak txandakatuta daude; hori guztia lagungarria da blokeen banakatze-prozesuak abia daitezen, blokeak irrista daitezzen eta, ondoren, grabitatearen eraginez eror daitezzen; labarraren oinean metatzen dira, olatuen eraso gogorren mende. Estratifikazio-planoek irristatze-gainazal eraginkor gisa jokatzen dute, batez ere okerdura eta malda bat datozen puntuetan.

Hegalen dinamika aktibo horren emaitza bloke handiak dira, modu kaotikoan metatuak eta, topografiaren arabera, aldi baterako geldirik irauten dutenak hegala erdian. Bloke horiek, grabitatearen eraginez, berriro higitzen dira labarren oinera iritsi arte; han, bat egiten dute itsasertza inguratzen duten harkoskor-hondartzekin.

Matxitzakoko harkoskor-hondartzak zerrenda zabal bat hartzen du, lurmuturraren alde banatan garatu den kosta-lerro osora hedatua dagoena; luzetarako garapena handia bada ere, okupatutako zerrenda dozena bat metro ingurukoa baino ez da bere sektorerik zabalenetan.





Matxitxakoko mapa geologikoa; ikus daiteke zer eremu hartzen duen kolubioi-estaldurak lurmuturraren bi isurialdeetan.

Hondartza harkoskorren eta bloke heterometriko oligomiktikoen metaketaz osatuta dago. Blokeak oso biribilduta daude kostaldeko dinamikaren ondorioz. Harkoskoak dira nagusi, baina, tarteka, hareazko guneak ere agertzen dira, itsasbeheran errazago ikus daitezkeenak. Higadura askotarikoa da; badira ertz oso higatuak, kostaldeko dinamikaren berezkoak, eta badira beste ertz batzuk markatuago ageri direnak; azken horiek hegal-prozesuekin erlazionatuta daude, hondartza hegalaren kontaktuan baitago malda handiko labar edo ezponda baten bidez. Granulometriari dagokionez, metakinen ezaugarria heterometria handia da, baina tamaina handiko blokeak nabarmentzen dira; eskuarki, hegal-prozesu grabitatorio oso aktiboek eratzten dituzte, Erdi Albiar-Cenomaniar komplexuko material ahulei eragiten baitiete.

Tokiko talde litologikoen ezaugarri nagusia, harkoskorrik higatuenen eta hondarren kasuan izan ezik, haien izaera autoktonoa da. Eta horrek zerikusia du, berriro ere, hegal-dinamikaren izaera aktiboarekin, hegalak baitira metakinaren parterik handienaren sorburua, batez ere tamainarik handienekoena.

Beraz, GIL honek balio geomorfologiko handia du, hegal dinamikaren izaera aktiboagatik, zeina luizi ugarietan eta bi isurialdeak estaltzen dituen kolubioi-estaldura lodian azaltzen baita.

## Behatzeko punturik onena

*In situ.*



Harkosko-hondartza Matxitxako lurmuturraren ekialdean.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 88, GIL 22.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 92, GIL 94, GIL 96, GIL 99, GIL 100, GIL 101, GIL 102, GIL 103.

## GIL-aren balorazioa

	Balorazioa	Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					